

DROGETEN

ITTURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 201. alea. 2012ko maiatza

**Lorea Perosanz
eta Jabi Vidal,
Senegaleko kronikak**



Seguros Bilbao, tradizioa eta berrikuntza

**BULEGO BERRIA
ERMUAN:**
San Pelaio zeharbidea 6 A-B
(Eroski gainean)

Produktu bat edo beste hautatzerako orduan, kontsumitzaileok aukera ugari ditugu egun. Prezioa, kalitatea, eman behar diogun erabilera eta produktuaren itxura ere faktore garrantzitsuak dira erosteko erabakia hartzean. Lehia libreko merkatuan bizi gara eta hori guztion probetxurako da, baita aseguruiei dagokienez ere.

- Zentzu horretan, zer du Seguros Bilbao beste aseguru batzuekin alderatuta?

Hasieratik hasteko, ia ehun urteko esperientzia du merkatuan, Seguros Bilbao 1918an sortu baitzen. Betiko konpainia bat garelara esan daiteke. Gainera, aseguru zein finantza-produktuetan eskaintza globala du. Bukatzeko, profesional-sare zabaldua duela esan beharra dago, Espainian 450 bulego eksklusibo baino gehiago dituen, horietatik 57 Bizkaian daude.

- Zein da merkatuan hainbeste urte irauteko sekretua?

Berritzeko duen ahalmena, zalantzarik gabe; hau da, egoerak aurreikusi eta beharrezko aldaketak egiteko gaitasuna, beti ere konpainiaren identitateari lotutako baloreak, ezaguna egiten duten berezko balore horiek galdu gabe. Hobetzeko aldatzen dugu, ez ezberdinak izateko.

- Zehaztu apur bat, zeintzuk dira Seguros Bilbaoaren identitatea markatzen duten balore horiek?

Bezeroarekiko zerbitzuarekin lotutakoak, dudarik gabe. Gure kasuan, kontzeptu hori bi frontetan laburbil daiteke: alde batetik, bezeroari aholkularitza profesional egokia emateko gai izatea, eta bestetik, aseguraturako pertsonari momentu garrantzitsuetan ematen zaion arreta zaintze, ezbeharrak duenean alegia. Niri dagokionez, eta laburbilduz, nire bezeroek badakite datorena datorrela, laguntzeko prest izango nautela beti.

- Irakurle batek edo bestek pentsatuko du agian aipatzen duzun arreta pertsonal horrek prezio altuago bat ekarriko duela bere polizan.

Inola ere ez. Egundak, enpresen arteko 'lehiakortasuna' esaten diogun horrek dakar prezioen arteko diferentzia, izatekotan, oso txikia izatea. Seguros Bilbao ez da prezio altudun konpainia bat, kalitate handidun konpainia baizik.



- Aseguruetarako, beste jarduerak batzuetan bezala, teknologia berriek, Internetek zehatzago esateko, bezeroekiko harremanetan aldaketa ekarri du?

Egia da, baina berriro diot: zerbitzuaren kalitatea, tratua pertsonala, bezeroarekiko hurbiltasuna, etab. betiko baloreak dira eta nire ustez oraindik urte asko-

tan indarrean jarraituko dutenak. Batez ere, zuzenean pertsona batek erantzutea nahiago dutelako pertsona gehienek, are gehiago gure kasuan, ezbehar bat izan eta gero. Argi dago nire lanean teknologia berriak aplikatzen ditudala, hobetzen eta eraginkorrago izaten laguntzen baitidate. Baina badakit nire bezeroek beste gauza askorengatik baloratzen nautela.

ALEX MAESTRE aholkularia

San Pelaio zeharbidea 6 A-B, Ermua (Eroski gainean) · Tel.: 943 17 42 82 · aelasesores@segurosbilbao.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibarriga, Ane Saénz eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Jabi Vidal

LAGUNTZAILEAK:

Leire Elustondo, Jon Flores, Fede Iturriagagoitia, Patxi López, Alicia Lorenzo, Pello Mugarza, Valentín Mugarza, Izara Rivas eta Jabi Vidal.

ARGAZKIAK:

Igone Amesti, Begoña (Beta elektrizitatea), Damudot, Leire Elustondo, Eskolabarri, Estibalitz González, Asier Ibaibarriga, Alicia Lorenzo, Valentín Mugarza, Mikel Olaizola, Izara Rivas, Ane Saénz, Topagunea, Jon Uribe, Dorleta Vidal eta Jabi Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Andrea Díez, Nora Mateos eta Xabat Uzuriaga.

TIRADA:

2.300 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

BUZTANIKARA *Lavandera blanca Motacilla alba*



‘Tiki-tiki’ buztana etengabe gora eta behera mugitzen du, urduri edo hotzetan balego legez. Bikoteka dabilta eta aldraka ibiltzekotan, neguan; elkartzekotan, gehiengoz jota dozena erditxo bat. Papar eta begi buelta osoan zein tarteka hegoetan, luma zuriko txori beltza da. Erreka txiki eta garbiak maite ditu buztanikara horiaren pare, baina zuri hau ganadua dagoen lekuetara jotzeko tokea du, base-ri inguruetara, pekorotz artean hain gustuko dituen intsektu eta harrak topatzen dituelako itxura denez.

San Pelaion, Ongarain, Hanbren eta Mallabiko edozein baserri inguruan, ‘Tak’ agertu daiteke eta hurreratuz gero segidan egingo dizue martxa. Hain da ipurloka bera!

Hilabete honetan...

MUSIKA TALDE-TXOKO4 Damudot	BOTEPRONTOAN 16 Amaia Kapanaga
ELKARRIZKETA:5-7 Ziriako Ortiz de Zarate	KIROLZALE 17 Ermuar eta mallabitarak Bukaresten
MALLABIAN ZER?8-9 Mallabiko Udaleko proiektuak	IRITZIA 18 Futbolearen adituak
ERREPORTAJEA 10-11 Lorea eta Jabi Senegalen	SALEROSKETAK 19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN..... 12-13 Alboka Musika Eskolako ikasleak	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? 14-15 ‘Gaua Zabalik’ ekimena eta Roberto Vega sukaldaria	KALEKO INKESTA21 Ermuko eta Mallabiko jendearen iritzia
	AGENDA22 Ekaineko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Damudot

- Noiz sortu zenuten taldea?

2000.urteko hasieran sortu zen Damudot. Talde askoren antzera, lagunuen artean taldea sortzeko animatu ginen eta lagun batzuen laguntzarekin Zaldibarko 'Poluto' bateria-jotzailearekin eta baxua jotzen duen Alexekin elkartu ginen. Anjel Zornotzarra gitarra zela eta Jon mallabitarrak ahotsa jarri eta gitarra jotzen zuen.

- Zein izan da taldearen bilakaera?

Hasiera batean Zaldibarko Rock Elkartean egiten genituen entseguak beste talde batzuekin batera. Musika serio hartu genuenean, ordea, soilik guretzako den lokala topatu genuen Mallabian. Taldekideei dagokienez, 2006ko maketa atera aurretik Anjel eta Alexek taldea utzi zuten eta hirukote moduan aritu ginen 2010. urtera arte. Orduan, Dani gitarrista eibartarra sartu zen, berarekin batera diskoari azken ukituak eman eta 2012an gure lehen lan luzea atera berri dugu: 'Heriotza da bakea dakarren bakarra'.

- Zein da zuen musika estiloa?

'Thrash metala' dela esan daiteke, ukitu 'heavy' batekin, baina 'euskal metala' esaten diogu guk, Su Ta Gar-ek edo Latzen moduko taldeek jorratzen dutena bezalakoa.

- Zenbat lan kaleratu dituzue?

2006an kaleratu genuen maketa, 'Gerraren jabe', sei abestik osatzen zuten. 2012an atera berri dugun 'He-



riotza da bakea dakarren bakarra' diskoa, berriz, hamar abesti indartsuz osatuta dago.

- Zer topatu daiteke zuen lehen disko luze honetan?

Maketa atera genuenetik urte asko pasa dira. Hori dela eta, aniztasun berezia dauka diskoak, abesti bakoitzak bere ideia eta letra garatuak ditu, eta elkarrengandik desberdintzen dira. Diskoaren soinua ere asko zaindu dugu. Izan ere, Carlos Creator konpontzaile eta gitarrista ospetsuak lan egin dugu diskoa grabatzeko orduan, eguneko 'metalak' duen soinua indartsua lortzeko. Su Ta Gar-eko Aitor Gorosabelek ere parte hartu du diskoan abesten eta guretzako oso garrantzitsua izan da bere partaidetza, betidanik haien jarraitzaile sutsuak baikara.

- Zer buruz hitz egiten dute zuen abestiek?

Abesti guztiak Jon Floresek sortutakoak dira. Disko osoan nabarmena da gizakiaren alde ilunenari begira idatzi dituela, non bera bihurtu den munduko gaitzen errudun eta bera den munduan soberan dagoen bakarra.

- Zeintzuk izan dira zuen azken kontzertuak?

Hilaren 5ean Su Ta Gar-ekin batera jo genuen Eibarren. Guretzako oso kontzertu garrantzitsua izan zen, gure ibilbide osoan aukera horren zain egon izan garelako, besteak beste. Azkenean gure momentua heldu zen eta, gure ustez, oso ondo joan zen. Gainera, hainbat disko eta kamiseta saldu genituen. Azken kontzertua joan den asteburuan eman genuen, VertigoRocken.

- Zuekin kontaktatzeko?

www.myspace.com/damudot,
www.facebook.com/damudot.ofiziala
eta damudot@gmail.com helbidean.

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen



Ziriako Ortiz de Zarate:

“Pena handiz utzi dut esatari lana”

Pasa den martxoaren 19an, San Jose egunez eta Arrate irratiko uhinak erabiliz, herri kiroletako plazak eta irradi esatari lanak uzten zituela iragarri zuen laster 84 urte beteko dituen Ziriako Ortiz de Zaratek. Hasi bezala egin zuen azken ekitaldia, bertsoak kantatuz. Ia 60 urteko ibilbide luze eta emankorrari agur esateko ordua iritsi zaion honetan, zenbait pasarte jasotzeko aukera izan dugu berarekin izandako solasaldian.

- *Nola gogoratzen dituzu haserako urte haiek?*

Herri kiroletako esatari lanetan hasi nintzela badira 60 urte baino gehiago. Lehenengo Ermua eta Eibar inguruko auzoetan laguntzen jardun nuen. Pilotariak, trikitilariak eta bertsolariak ekartzen laguntzen nuen. Halakoak debekatuta zeuden garai hartan.

- *Zein lekutan egin zenuen esatari legez aurreneko plaza?*

Nire debuta, plaza handi batean, duela 30 urte izan zen. Abadiñoko San Blasetan. Alkatea Karmelo Larrauri zen eta hark deituta joan nintzen. Nire senide guztiak Abadiñokoak ziren jaiotzez nahiz eta ni Eibarren jaio. Herri kiroletako katedrala izena ere nik jarri nion eta hor jarraitzen du. Jabier Uriarte izan zen ondoren alkate eta hutsik egin gabe han izan naiz 30 urtean.

- *Arrate Irratian gero esatari...*

Don Pedro lagun handia nuen. 1940an etorri zen abade Arratera eta jaiak antolatzen laguntzeko eskatu zidan eta bertsolari, harri jasotzaile eta aizkolariak ekarri nituen. 1942an izan zen hori. Probalekua ere 1944an egin zuen. Arrate Irratia sortu zuen ondoren eta Trabakuko Anjel eta bere emaztea hasi ziren han



lanean. Irratira etortzeko eskaintza egin zidan abesti zaharrak eta bertsoak kantatzera. Handik gutxira Fragak itxi zuen. Berak esana da: *“esta emisora no se abrirá mientras yo viva y no se ondeará la ikurriña”*. Handik urte batzuetara irratia ireki eta berriz deitu zidan laguntzeko. San Jose eguna zen. 3 bertsorekin hasi eta Gernikako Arbola abestu nuen, besteak beste.

- *Urteotan egin duzun guztia aztertuz gero, zerk utzi ditu aho zapore gozotena?*

Arrate Irratian hasi nintzeanean, urte luzez, zapatu goizetan, azokako berriak

ematera joaten nintzen eta nirekin batera, umeak eramatzen nituen. Ermua, Zaldibar, Berriz, Atxondo... eskualde askotako umeak. Umeen jaialdia izaten zen.

Jose Mari Pato, harri-jasotzailea:



“Nire herri kirol ibilbidean 3 pertsona izan dira: Zelai, Pedro Langa eta Ziriako. Haien laguntzarik gabe ez nintzen mundu horretara hurbilduko eta egin dudana ibilbidea egin. Asko zor diet hirurei. Ziriakori esker plaza askotan eta leku askotan egoteko aukera izan dut. Asko eskertzen diot nihatik egin duen guztia”.

Bernardo Ibarra, Arrate Irratiko zuzendaria:



“Ziriakok egin duen lanarekin oso pozik gaude. Asko mugitu da, eman izan duen informazioa berak ikusitakoa, berak sortutakoa izan da beti. Bere kasa, askatasun osoz jokatu du. Jarraitzaile asko izan ditu eta hemen inor ez denez betiko, bada uzteko ordua iritsi zaio. Gure irratian herri kiroletan utzi duen hutsunea nola bete bagenuen kezka, baina ordezkioa bilatzea lortu dugu eta aurrerantzean ere herri kirolari tartea ematen jarraituko dugu”.

**“Harri-jasotzea dut gustukoen,
3 hamarrekotara 2 harri-jasotzaileen
artean lehia estua bada”**

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Poz handiena horrek eman dit. Garai haietan haurrak zirenak, orain guraso dira eta akorduan daukate hura. Kanean agurtzen naute, garai haiek gogorarazten dizkirate. Hori ederra da.

- **Agurra iragarri zenuen eguna nola gogoratzen duzu?**

Agurra ere 3 bertsoekin egin nuen. Jende askoren deiak jaso nituen. Tartean Mallabiko amona bat negar malkotan. Pena handiarekin utzi dut hau guztia. "Año

nuevo vida nueva" esaten nuen abenduan. San Blasak iritsi eta agurra egiteko asmoa nuen baina hura ere pasa zen. Golpe handia izan da Felipe Ugartebururen heriotza ere. Mutil jatorra zen. Hark istripua izandako lekutik makina bat aldiz pasatua naiz eta inguru hartan istripu larria izan nuen nik ere. Uzteko ordua zela konturatu nintzen. Gauetan gidatzeko ere arazoak ditut.

Jose Antonio Gisasola
'Zelai II' harri-jasotzailea:



"Ziriakok herri kirolari emandako bultzada izugarria izan da. Baserrietatik plazetara joaterik izan ez duten makina bat ezindu edo gaixorentzat bera izan da herri kiroletako ahotsa. Herri kirolen zaletasuna asko bultzatu du. Arlo asko ukitu ditu gainera: harri-jasotzea, idi-probak, aizkora... Egunero, egunero etenik gabe hango eta hemengo berri emanez, igarriko da bere hutsunea plazetan eta irrastian bertan ere."

Jose Ignacio Isla,
Bizkaiko Herri Kirol
Federakundeko
lehendakaria:



"Herri kirol munduan dararadan denbora guztian Ziriako hortxe egon da. Hizlari fina, herri kirolen maitale, pertsona eta lagun oso ona. Askok maite dit. Plazan bere hutsunea nabaritzen hasiak gara eta horrek dena esan nahi du. Zortetik onena opa diot eta eskerrak eman, egin duen ibilbide guztiagatik".

"Dei asko jaso nituen agurra iragarri nuenean, tartean Mallabiko amona bat negar malkotan"

- **Makina bat herri eta auzo ezagutu dituzu...**

Euskal Herri osoa ezagutzeko aukera izan dut. Auzoak, herriak... zer ez! Hemendik kanpo ere, Bartzelona, Asturias, Madril, Kanariar Irlan ere egonda nago.

- **Herri kiroletan makina bat kirol daude. Zein izan duzu gustukoena?**

Harri-jasotzea. 3 hamarrerotara bi harri jasotzaileen artean lehia estua baldin bada.

- **Herri kiroletan kirolari konpletoena?**

Lan guztiak kontuan hartuta, Joxe Mari Olasagasti. Harri-jasotzen, korrikan, segan, denean da oso ona. Lan bakarrera, Markinako lehoia idi probetan eta Mieltxo Sarageli eta Zelai harri-jasotzen.

- **Plaza bat?**

Abadiñoako San Blasetik aparte, Azkoitia aipatuko nuke.

- **Herri kirol mundua zein egoeratan dago?**

Ondo. Jende nagusia ikusten da publikoaren artean

baina probak asko ugartu dira. Probak egun askotakoak izaten dira, 6-7 egunekoak ere bai. Zaldi mandoak, aizkolariak... denean daude. Telebistan ere herri kirolek badaukate beraien tartea.

- **Horrez gain pilotazalea ere beti izan zara...**

Herri kiroletan aritu baina ere, esku pilota izan da gehien gustatu zaidana. Gure aita zena eta anaia ere pilotari onak izan ziren. Miguel Gallastegi handia ere lagun mina dut. Anai bat da niretzat. Mondragones pilotaria ere ezagutu nuen eta geroztik pilotari denak ikusi ditut. Iñaki Elgea ere lagun handia dut. Motorra hartu eta leku askotarako joaten ginen elkarrekin.

- **Pilotaririk onena nor izan da?**

Askok aldatu da prestaketa eta materiala baina onena Julian Retegi, Retegi II.

- **Besterik?**

Eskerrik asko urte hauetan guztietan izan ditudan jarraitzaile eta entzule guztiei.

Asier Ibaibarriaga

optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnua. 943 17 46 51

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOIREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

ONTINDIA HARATEGIA

Etxean egindako odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1 Tel. 943 10 85 44
48260 - ERMUA Mug. 678 64 85 41

Descubrete

- Teak eta kafeak.
- Belgiako txokolata.
- Eguneko tea dastagarri
- Osagarriak: teontziak, katiluak, infusoreak....

Oparitzeko neurria egindako poltsak!

Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

Hainbat proiekturi ekingo dio Mallabiko Udalak datozen hilabeteotan

Herri baratzak, etxebizitza eta atez ateko zabor bilketie martxan jartzeko lanien dihardu Mallabiko Udalak. Hona hemen hauen inguruko informazinue:

Etxebizitzak mallabitarrentzat

Kalbarixo kalien etxebizitza sozialak egiteko bideragarritasune aztertzeke, zenbaterainoko eskarixe dagoen aztertzen dabil Udala. Nahiz eta garai zaila izen, etxebizitzaren arazuai irtenbidie bilatu nahi deutse. Hori dala eta aukera ezberdinek dauzela eta, danak aztertu biher diela adierazi dabe udaleko ordezkariexek.

Holan, Udalak, etxebizitza honetan interesa daukentan aukera onenak zeintzuk dien aztertu eta prozesue aurrera erueteko ahalegine egingo dabela adierazi dau. Etxebizitza sozialak egiteko orduen, bi aukera ezberdin dagoz. Bata, etxebizitza tasatuek die; bestie etxebizitza kooperatiba.

Bi aukera honek azaldu eta prozesuek eukiko leukezan pausuek argitzeko, Udalak interesa dauken mallabitar guztixentzako batzarra antolatu dau. Hau maiatzaren 24an izengo da, arratsaldeko 19.00etan, Kultur Etxien.

Herri baratzak

Ekimen honen bidez, lur eremurik ez dauken mallabitarrei baratz ekologikue eukitzeko aukerie emon nahi jakue.

Nahiz eta hainbat gauza ondiok zehaztu barik egon, herri-baratza Malle Azpi kale gaiñeko landetan jungo litzateke. Asmue, bertan

15-25 baratz egitie da. Udalak, lur zalle, instalaziñue, etxola komunaz eta erremintak jarriko leukez. Erabiltzailiek honek zaintzian ardurie izetiaz gain, 7 eta 12 euro bittarteko kuota ordaindu beharko dabe.

Funtzionamenduari dago-kixonez, erabiltzailiek elkartie sortu beharko dabe (lehendakarixe, diruzaiñe eta errekurtsuen arduradunarekin). Elkartie bera arduratu biherko dau instalaziñuen mantenuaz; baitte, lur zalle, lantresnak, etxola, inguruek... garbi mantentziaz be.

Dagoeneko, Udala hasite dau herri baratzak eukiko dauen aurrekontue lantzen; jakitera emon dauenez momentuko egoerie dala eta, herri lana da egitasmue aurrera erueteko aukera bakarra. Aukera honek, hasierako aurrekontue txikittu eta bideragarrixaue egiten dau eta.

Holan, aurreikusten dien egin beharrekeuk honakuek die: lur mugimenduek (bide eta solue prestatzeko), argi, ur eta zorroten kanalizaziñue, partzelak, etxola muntatu eta bernizatu, euri ure aprobeatxatzeko instalazi-



Jon Uribe

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR



ñue, ingurue zarratu eta egokitu, eta lurrari ongarrixe bota, bestiek beste.

Guzti honen barri emoteko Mallabiko Udalak, maiatzaren 29an, 19.00etan, Kultur Etxien egingo dau batzarrara. Bertan ekimen honen nondik norakuek zehaztasun handixauaz azalduko die. Interesa dauken danei bilerara jueteko deialdixe egitten deutse Udalak.

Zabor bilketa eredue aldatu

Zaborraren arazoari konponbidea emon nahixen, Udala hasite dau 'Zero Zabor' proiektue aztertzen; izen be, beharrezkotzat jotzen dau herriko zabor bilketa eredue aldatzie. Honen helburue da hondakin organikue herrixen bertan kudeatzie eta papela, plastikuek

eta bestelako materixelak gaika biltzie, gero birzikla daitezzen.

Herritarrek konposta egiten hastera animatu nahi ditu Udalak eta horretarako konpostadorak eskatu behar dira Mankomunitatera eta ikastaro bat egin, konposta zelan egiten dan ikasteko.

Nahiz eta ondiok mankomunitatie bideragarritasun plana egiten egon, eta Udalak proiektuan nondik norakuek aztertu eta erabakitzeke euki, 2013 urtien zihar martxan jartzeko asmue dauela adierazi dabe Udaleko ordezkariexek. Gai honi buruzko informaziño gehixago nahi izenez gero, hartu parte honen inguruan antolatuko diren batzarretan eta ekitaldixetan.

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre

MALLABIKO BERRI LABURRAK

FUTBITO TALDIE MARTXAN

Mallabiko futbito taldiek aurten be ekainerako ekitaldi mordo bat preparau ditu. Batzuk aipatzearren, hilan 2xen eskoletan 11.00etan, eskolarteko saskibaloia izengo da. Ekainan 15, 16 eta 17en euskerian aldeko helduentzako futbito maratokie izengo da Azkaldean. Aipatzekue 1.800 euro banatuko diela sarixetan. Hilan 3ra arte apuntau ahal izengo da. Amaitzeko asteburu berien herriko frontoien binakako frontenis txapelketie egingo da.

SAN ADRIANAK GERIEN

- Ekainak 14, eguena:

Txopue jasotzie 19.00etan.

- Ekainak 15, barikue:

17.00etan Briska txapelketa.

- Ekainak 16, zapatue, San Adrian egune:

12.00etan meza eta ondoren zurrutada.

16.30ean txokolatadie auzoko umientzat.

- Ekainak 17, domeka:

11.00etan mezie. Meza ostien 'Gazte Alai' dantzari taldie.

Bertsolarixek: Beñat Ugartetxea eta Joseba Artza.

18.00etan Asto probak.

Ondoren, janariz eta edariz betetako karretillian zozketie egingo da.

PINTXO-POTIE MALLABIXEN

Bastida eta Herriko tabernen ekimenez, pintxo-potie jarri dabe Mallabixen martxan. Maiatzen 10ien hasi zien, eta ordutik, eguenero 19.00etatik aurrera, pintxo desberdinek dastatu ahal izengo die tabernetan, 1,5 euroren truke.

UEU IKASTAROAK EIBARREN

Udako Euskal Unibertsitateak Eibarren antolatuko dituen ikastaruetan parte hartu nahi daben herritarrei diruz lagunduko die Mallabiko Udalak. Informaziño gehixago Kultur Etxean.



ingeniaritza
imh

Informazio Saioa:
maiatzaren 26an, 11:00etan

etortzeko deitu 943744132ra edo idatzi hemen: www.imh.es

DBH
Ondoren?
**ERDI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOA**
ikasi, eta gero
lanera edo goi
maila ikasten
jarraitu...

Erdi-maila

- Mekanizazioa
- Mantenu Elektromekanikoa

* berria

BATXILERGOA
amaitzean?
**GOI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOA**
aukera berria:
alternantzian

Fabrikazioan eta
Muntaian!

Goi-maila

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika industrial*

* berria

... goi-mailako
Heziketa Zikloaren
ondoren egiteko
Pentsatutako INGENIARITZA:
**Txandakako
Ingeniaritza
alternantzian**

Aurten GRADU BERRIA!

- Prozesu eta Produktu Berrikuntzaren Ingeniaritza (bideratzen)

* berria



Argiak eta itzalak Senegaletik

Afrikak iluntasunean hartu gintuen, gauz heldu baikin Senegalera. Dakarreko aireportua jendez gainezka zegoen eta bertan denak prest gure maletak eramateko txanpon batzuen truke. 'Ino' gure zain zegoen eta berarekin **Shangue** herrira abiatu ginen kotxez. Espero ez baguen ere, errepideak jendez lepo zeuden, danetik saltzen, hitz egiten... eta gauerdiko 12ak ziren! Egia esan, giro ona zegoen kalean egoteko baina gu, heldu eta lotara joan ginen.

Hurrengo egunean **Shangue** herrira ikusi genuen: hango eskola txikia, bere jendea, hango bizimodua... eta uraren garrantziaz jabetu ginen berehala. Han pu-

tzua ezinbestekoak dira ura lortzeko eta beraien inguruan bizitza dago, umeez eta emakumeek han pasatzen baitituzte orduak eta orduak ura ateratzen eta sarritan hitz egiteko eta jolasteko tokiak bihurtzen dira putzuok.

Hurrengo egunean **Thiesera** joan ginen. Thies hiri handi bat dela eta kaosa bere ezaugarri nagusia dela esango genuke. Kotxeak, bizikletak, karroak, astoak,



jendea oinez, jendea danetik saltzen.... bertako bizilagunak irudi kaotiko batean elkarrekin erlazionatzen dira.


Handik '**Lac Rose**' edo 'laku arrosa' ikustera joan ginen. Oso laku bitxia da, kolore arrosa baitauka bere uretan gatzaren kopurua oso altua delako eta han bizi diren mikroorganismo batzuk kolore hori ematen diote. Lakutik gatza ateratzen egiten du lana jende askok.

Handik **Mbour** eta bere portua ezagutzera joan ginen. Mbour-go hondartza ez da hemengoak bezalako: han ere jende asko egoten da, baina ez eguzkia hartzen; han ere jende mordo biltzen da, batez ere arratsaldetan arrantzaleak bere txalupetan harapatutako arrainekin heltzen direnean. Leku hura ere, hitz egiteko, gauzak saltzeko eta jendea erlazionatzeko gune bihurtzen da eta, nola ez, arrainak saltzeko gune baita ere. Arrantzaleek ekarritako arrainen artean bi motakoak bereizi daitezke: arrain 'ona' izan daitekeena, bizkor eramaten dute kamioietara gero Europara ekartzeko; gainontzeko arrain 'txarragoak' hondar-

Senegalera bidaia egin zuten Lorea Perosanz eta Jabi Vidal ermuarrek martxoaren hasieran. Herrialde berria ezagutzeaz gain, Maria Hortensia 'Ino' Perosanz misiolariari eta senideak egiten duen lana gertutik ikusidute. Era berean, Zaldibarko Liburutegiak emandako eskola-materiala bertako umeei helaraztea izan da euren xedea, besteak beste. Kronika honen bitartez, Afrikako mendebaldeko herrialde honetan bizi izandakoen berri eman digute.

tzan saltzen dira edo sikatu egiten dira bertakoek erosteko.

Mbour herriak azoka handi bat dauka eta han jende eta postu mordo dago. Edozer eros daiteke bertan, baina bereziki deigarriak dira Senegaleko telak. Fama handia dute eta euren kolore biziakin soine-



uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia



MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoaia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

koak edo beste edozein jantzi egiteko erabiltzen dira. Baina Mbourek ere baditu bere itzalak. Bertan gurazorik gabeko umeentzako haurtzaindegia bisitatu genuen eta oso gogorra izan zen guretzat.

Bidaia aurrera egin zuen eta hurrengo geralekua **Bouhor** herririka izan genuen. Zaldibarko Liburutegitik ekarritako materiala bertako eskolan laga genuen. Oso eskola pobrea da eta daukaten mapa bakarra arbelean margotutakoa da. Guk eramandako kontuak, beraz, aprobetxagarriak izango dira oso. Gainera, medikamentu eta arropa mordoan eraman genien, guztira 100 kilo inguru!



Bouhor herrira joateko ez dago errepiderik. Bideak harez beteta daude eta zaila egin zitzaigun bidea topatzea. Izan ere, behin baino gehiagotan galdu ginen. Ha-

la ere, inguruan dauden Baobab ugariak ikusteko aukera izan genuen. Baobab-ak zuhaitz erraldoiak dira eta Afrikako ikurrak dira. Lurralde hartan oso garrantzitsuak dira eta euren bueltan gauza asko egiten da, hala nola herriko jendea bildu gauza inportanteak eztabaidatzeko edo hildakoak agurtzeko.

Handik **Joal-Fadiout** herrira joan ginen, oso leku bitxia benetan. Oskolez egingako irla bat da: oskolak lurrean, oskolak etxeetan..., dena oskolez eginga dago! Baina gauza guztien artean bitxiena kanposantua da, ez bakarrik dena oskolez beteta dagoelako, baizik eta mu-

sulmanak eta kristauak elkarrekin lurperatuta daudelako. Han erlijioak ez du arazorik sortzen eta bertakoek elkarri laguntzen diote ermita edo eliza berria eraiki behar dutenean.

Gure bidaia Senegaleko hiriburuan bukatu zen, **Dakarren**. Handik Gore irlara edo 'morroien irla'ra joan ginen. Uharte horrek garrantzi handia izan zuen morroien merkatuan, morroi asko bidali zirelako bertatik Europara eta Amerikara. Gaur egun, morroien etxea museo bat da eta euren historia eta bizi-baldintzak ezagutzeko aukera izan genuen bertan. Beldurgarria benetan!

Lorea Perosanz
eta Jabi Vidal



MUGA **KALONIAK**

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MALLABIKO
Herriko
taberna

EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIA

ETXERA

Eguneko platera (3€)
menua, bokatak,
plater konbinatuak,
pintxoak, kazolak,
arraina eta txuleta
parrillan (enkarguz)...

943 174 952
(asteartetan itxita)

IZOTZ
IZOZTUAK

ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goenkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

TXABI ARNALEN LIBURU BATEK SARIA JASO DU

Edelvives argitaletxeak antolatutako 'Album ilustratuen I. Nazioarteko Sarietan' aipamen berezia jaso du Txabi Arnal idazle ermuarrak idatzitako 'La pastora y el sapo' liburuak. Ilustrazioen egilea Julio Antonio Blasco López da, Arte Ederretan lizentziatua.

MAIATZAREN 30EAN EKINTZAILEAREN EGUNA OSPATUKO DA

Ekintzailearen Eguna ospatuko du maiatzaren 30ean Debegesak, Debabarreneko eskualdean gaitasun ekintzailea sustatu eta kultura ekintzailea bultzatu asmoz. Bestalde, eskolako Agenda 21 ekimenaren baitan, udalbatzar berezia egingo da Ermuko Udalean ekainaren 7an. Batzar horretan mugikortasuna hobetzeko proposamenak aurkeztuko dizkio te alkateari herriko eskolotako ikasleek. Informazio gehiago www.debegesa.com helbidean.

UDALEKUETAN IZENA EMATEKO EPEA 25EAN BUKATUKO DA

Udalekuetan parte hartu nahi duten umeei maiatzaren 25a baino lehen eman beharko dute izena Udaleko Euskara Sailean (liburutegi ohian, euskara@udalermua.net helbidean edo 943179147 telefonoan). Antxitxiketan begirale taldeak prestatutako egitaraua L.H.ko 1. mailatik 6. mailara bitarteko umeei zuzenduta dago.

Eskolabarrik 15. urteurrena ospatu du

Eskolabarririk 15. urte bete ditu aurten eta ospatzeko, hezkuntza komunitate osoari eta herri guztiari zuzendutako jaialdia egin zuen maiatzaren 18an. Goizean ekin zitzaion egitarauari eta eskulan-tailerretan parte hartzeko aukera izan zuten Lehen Hezkuntzako ikasleek Kardinal Orbe plazan. Arratsaldean, berriz, eskolako txikienek tailerrez, jolasez eta dantzez gozatu zuten eta bukatutakoan, txokolate-jana izan zuten. Bestalde, DJ Xaibor Diskofestan dantzan egitera gonbidatu zuten herri guztia Eskolabarriko arduradunek eta jaialdiari amaiera emateko afari herrikoia egin zuten. Honen ostean sari ezberdinen zozketa egin zen. Euren hitzetan "denontzat egun zoragarririk eta ahaztezina izan zen. Eskerrik asko denoi parte hartzeagatik!!".



Infreñu tabernak 15. urteurrena ospatuko du

Maiatzaren 30ean hasi eta ekainaren 9a bitartean, 15. urteurrena ospatzeko egitaraua prestatu du Infreñu tabernak. Maiatzaren 30ean, asteazkena, Javi Pedradasen bakarrikzeta entzuteko aukera egongo da 22.30etatik aurrera. Ordu berean baina ekainaren 1ean mus txapelketa egingo da eta irabazleek ardo sorta eta 4 lagunentzako afari-bonoa eskuratuko dute. Hurrengo egunean kontzertua egingo da tabernan, nahiz eta oraindik taldea zehaztu gabe dagoen. Ekainaren 6an luncha egingo da 19.00etan eta 8an, ostirala, bertso saioa egongo da Beñat Ugartetxea eta Arkaitz Estiballesekin. Urteurrenari amaiera emateko bazkaria egingo da ekainaren 9an. Bazkarira joan nahi dutenek alde zurretik eman beharko dute izena.



Martxan dago 'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimena

Apirilaren 23an jarri zen martxan 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' kanpainaren seigarren edizioa. Parte hartu nahi dutenek liburua hartu beharko dute maileguan Udal Liburutegian eta itzultzerakoan Xiripot eta Maribel liburu-dendetan euskarazko beste liburu bat erosteko deskontu txeketa jasoko dute. Deskontu txeketak %25 edo %50 bitartekoak izango dira, eroslea Euskal Biruseko kidea den edo ez kontutan hartuta. Gainera, liburua maileguan hartzen duten guztien artean bi zozketa egingo ditu Udal Liburutegiak. Ekainaren 30era arte iraungo du ekimenak aurten eta guztira 15 herrietan gauzatuko da: Aramaion, Urkabustaizen, Legutianon, Zuian, Santurtzin, Ermuan, Basaurin, Lezaman, Zamudion, Lazkaon, Azkoitian, Ataunen, Irunen, Irurtzunen eta Lizarran. Ekimen hau Euskal Birusa eta Euskara Elkartearen Federazioak antolatu du Ermuan.



Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Alboka Musika Eskolako hainbat ikaslek saria lortu dute 'I. Juan Crisostomo Arriaga' gitarra lehiaketan



Iraia Bengoetxea, Andoni Benito eta Javier Madariaga ermuarrek musikari gazteei zuzendutako 'Juan Crisostomo de Arriaga, I Gitarra lehiaketan' parte hartu zuten maiatzaren 12an. Iraiak eta Andonik bigarren mailan hartu zuten parte (11 urtetik 13ra bitartekoan) eta Andonik hirugarren saria jaso zuen. Egun eta ordu berean matematikako olinpiadetako finalean parte hartu behar zuten, baina gitarraren aldeko hautua egin zuten

ermuarrak. "Oso pozik nago sariarekin ez nuelako espero", dio Andonik. Iraiak ez zuen saririk jaso baina hala ere, pozik zegoen egindako lanarekin: "oso urduri nengoen baina esperientzia polita izan da. Datorren urtean berriro izena emango dut". Javierrek, berriz, lehen mailan hartu zuen parte (8 urtetik 10 urtera bitartean) eta bigarren saria jaso zuen. "Oso pozik nago ni ere, asko ikasi dut eta emaitza ona izan da", azaldu digu. Natalia Atxa irakaslea ere gustura dago lortutako emaitzekin eta horrelako lehiaketak umeak motibatze bide aproposa direla dio. "Nazioarteko lehiaketa da eta 50 ume inguruk hartu du parte -dio Atxak-, beraz pozik egoteko moduko emaitzak izan ditugula uste dut. Lehiaketa honetan ez da batere erraza parte hartzea umeek 3 pieza jo behar dituztelako buruz, eta horrek diziplina handia eskatzen du, bai eskolan zein etxean ere. Gainera eszenatokira igo eta jende aurrean bakarrik jotzeko beldur hori lehenbailehen kentzea oso garrantzitsua da, bai musikan aritzeko eta baita bizitzako edozein arlotarako ere".

Asier Ibaibarriaga Bizkaiko Bertsozale Elkarteko lehendakari izendatu dute



Euskal Biruseko kide eta Drogeteniturrri aldizkari kolaboratzaile den Asier Ibaibarriagak Bizkaiko Bertsozale Elkarteko lehendakaritza hartu du. Karmelo Uriartek eman dio lekukoa Ibaibarriagari eta "gogoz eta ilusioz beteta" ekingo dio honek lanari, hartzen duen ardura eta erantzukizunaren jakitun. Horixe irakur daiteke 'Bertsozalea' berriraperean. Azken urteotan Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko idazkari eta diruzain postuetan izan da Asier, Zuzendaritza eta Batzorde Ttipiko kide izan da eta epaileen koordinazioa eta prestakuntzaren ardura izan du.

Bertsolaritzaren sustapenean eta ikerkuntzan eragitea eta eskualde ezberdinetako jendeari parte hartzeko bideak irekitzea dira bere erronketako batzuk.


Saihesbidearen aldeko manifestazioa egin da Bilbon

Maiatzaren 19an Ermuko saihesbidea eraikitze beharra aldarrikatzeko manifestazioa egin zen Bilbon. Ermuko Udalak tren zerbitzu berezia ipini zuen herriko bizilagunak Bilbora dohainik joateko. Manifestazioa Atxurin hasi eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitzan bukatu zen eta ermuar ugarik hartu zuen parte. Gran Viako egoitzara heldu zirenean Ermuko Alkate den Carlos Totorikak komunikatua irakurri zuen eta bertaratutako guztiek bereziki sortutako abestia kantatu zuten. Udalaren arabera, 600 tren-txartel baino gehiago banatu ziren Abiapuntun aurreko egunetan.

TXINDURRI EGUNA EKAINAREN 9AN ETA 10EAN IZANGO DA

Txindurri Dantza eta Txistu taldeak ekainaren bigarren asteburuan ospatuko du bere eguna. Larunbatean, hilak 9, dantza erakustaldia eskainiko du plazan Tuiko 'C.C. Sans Fins de Rebordans' talde galiziarrekin batera (19.30ean). Domekan, berriz, diana joko dute 10.00etan eta dantzari eta txistularien kalejira egingo dute. 12.30ean dantza erakustaldia egingo dute plazan eta 14.30ean bazkaria eta erromeriaz gozatzeko aukera egongo da Aritzemendin.

EKAINEAN, ERMUAN KANTUAN ETA SAN JUAN SUA



Hilaren azken larunbatean burutzen den Ermuan Kantuan kantukalejirak aldaketa izango du ekainean, hilaren 16an egingo baita. Euskal Birusak urtero aldatzen du ekaineko hitzordua. Jardunaldi Gastronomikoen antolatzaileek egiten dioten gonbiteari erantzuteko. San Juan sua, bestalde, hilaren 23an egingo da, larunbata. Urtero bezala Euskal Biruseko arduradunek euren jarraibideak errespetatzea eskatzen dute, guztion segurtasuna eta jai horren biziraupena bermatu ahal izateko.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



D. ARRAL 97 S.L.
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892
arral@arral97.com
www.arral97.com

Ardo banatzailea:

Luis Cañas
Cantosán Verdejo
Viña 65 Verdejo
Amaren
Añada Real
Cava Oriol Rosell
Nitida
Montepinos

Merkatari eta Ostalari Elkarteko zuzendaritza taldea:

“Ermua Zabalik ahaztezina izan dadila nahi dugu”

Ermua Zabalik ekimenaren bigarren edizioa burutuko du ekainaren 16an Ermuko Merkatarari eta Ostalari elkarteak. Aurten sorpresaz josia egongo dela diote antolatzaileek. Izan ere, otsailean hasi ziren egitasmoa prestatzen.

- Zer da Gaua Zabalik?

Jai bat da, Ermua eta bere merkataritza sustatzeko eta ezagutzera emateko. Dendak gauean irekitzean datza, baina horrez gain, hainbat sorpresa topa ditza-kegu Gaua Zabaliken

- Noiz izango da?

Ekainaren 16an. Iluntzean hasiko da txupinazo batekin eta hortik aurrera ekintza desberdinak egongo dira: 10.30etatik aurrera dendak zabalik, haurrentzako hainbat ekintza (puzgarriak, koltxo-

netak), kontzertuak, eskalestrix-a, kaleko antzerkia... ez da egongo aspertzeko astirik!

- Zenbat dendek hartzen dute parte?

Berrogei denda inguruk hartuko dute parte baina horiez gain, elkarteko tabernariak gurekin izango dira Gaua Zabaliken. Dendetan egongo diren eskaintzez gain tabernetako hainbat eskaintza bereziz gozatu ahal izango dute ermuarrek.

- Aurreko edizioaren zein balorazio egin zenuten?

Arrakasta handia izan zuen! Espero genuen baino jende gehiago hurbildu zen guregana. Aurten ere horrela izatea espero dugu. Balorazioa ez dugu salmenten arabera egin. Merkatalgunea ezagutzera ematea eta herria girotzea direlako gure helburu nagusiak. Hala ere, jende asko animatu zen herrian erostera.

- Berrikuntzarik egongo da iaztik hona?

Arrakasta ikusita formatua mantenduko da, baina iazko balorazioa egin eta gero konaturatu ginen gazte askok parte hartu zutela. Horregatik, aurten hainbat ekintza txiki-ki zuzenduta egongo dira. Horrez gain, ermuarren parte-hartzea sustatuko dugu, baita lortu ere. Sutegi antzerki taldea denda eta kale-

etan barrena izango dugu antzetzten eta Rock & Road musika taldeak ere kontzertu bat eskainiko du San Pelaion.

- Zenbat denbora behar izan duzue hau guztia prestatzeko?

Otsailean ekin genion lanari merkatarari elkarteko kideok egindako asanbladarekin. Ordutik hona buru belarri aritu gara lanean Ermuko biztanleei ahalik eta eskaintza erakargarriena eskaintzeko. Oraindik lanean dihardugu, programako hainbat gauza ixtear daudelako. Gaua Zabalik ahaztezina izan dadila nahi dugu!

- Zuentzat, Merkatarari eta Ostalariaren Elkarteko lehen-dakari moduan lehenengo aldia izan da. Nolako izan da esperientzia?

Esperientzia oso positiboa izan da, baina garai hauetan alderdi ekonomikoari aurre egitea izan da erronka handiena. Hala ere, ideiez eta gogoz indartsu gabiltza eta horrek zailtasun guztiak gaintzen ditu.

- Amaitzeko, animatu Ermuarrak Ermua Zabalik-en parte hartzera:

Dendak irekitzeaz gain, eskaintza kultural polita egingo dugu ekainaren 16an. Gainera guregana hurbiltzen diren bezeroek zozketetan parte hartzeko aukera eta beste hainbat sorpresa izango dituzte!

Ane Saénz



O eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak, lentzeria, aulkiak, sehaskak, tronak... behar duten guztia!

Eta gainera 'Hello Kitty'-ren artikulu mordoak!

Probaleku 4, Ermua · ☎ 943 033 830



CITROËN

AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

Euskara eta euskaltegia egin biak zureak



Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25

Roberto Vega, sukaldaria: "Sukaldean ez nau ezerk beldurtzen"

XII. Jardunaldi Gastronomikoak ekainaren 8tik 16ra bitartean burutuko dira eta antolaketan parte hartzen dutenen artean Roberto Vega dago. Sukaldaritzari duela bi urte heldu zion arren, Michelin izar bat duen jatetxean dihardu lanean Robertok gaur egun, Bilboko Etxanoben alegia.

- Zer dela-eta erabaki zenuen tailer batetik sukaldaritzara salto egitea?

Tailerra krisiak jota zegoen eta indemnizazioa kobratzea erabaki nuen. Betidanik izan dut sukaldaritzaren gustuko eta ikasteari ekiteko une aproposa zela pentsatu nuen.

- Zeintzuk ziren zure hasierako asmoak?

Eskola edo tailer bateko jantokian lan egin ahal izateko eskuratu nahi nuen titulua. Baina praktikak bukatzeke astebete geratzen zait eta beste lan aukera batzuk agertu zaizkit.

- Non burutu dituzu hiru hilabeteko praktikak?

Euskalduna Jauregian dagoen Etxanobe jatetxean. Fernando Canales sukaldariaren jatetxea da eta Michelin izar bat dauka.

- Eta zeintzuk dira aipatzen dituzun aukera horiek?

Etxanoben lana egiteko proposamena jaso dut eta pozez zorutzen nago.

- Nola baloratzen duzu orain artekoa Etxanoben?

Oso esperientzia ona izaten ari da, zorte handia izan dut jatetxearekin. Asko ikasi dut eta asko irakatsi didate. Ez dute ezer ezkututzen, beti daude azalpenak emateko prest. Gainera beste ikaskide batzuekin alderatuta ezin naiz kexatu.

- Zein da zure lana bertan?

Sukaldeko lana hainbat ataletan banatuta dute eta sarrera hotzak eta postreenpartidan nago ni. Egia esan oso ondo antolatuta dago, ez dakit horrek ere Michelin izarrarekin zerikusia duen! Karta erarekin ez dut sekula lanik egin eta banuen gogoia.

- Aurretik inolako esperientziarik zenuen?

Herriko jatetxe batzuetan aritu izan naiz zertxobait, ezagunen bitartez. Gainera, azken urte honetan Eguzkialden egin dut lana asteburuetan, nahiz eta orain laga egin behar izango dudana...



- Tartean, Eusko Labelek sukaldaritzara eskolei zuzendutako III. lehiaketan ere parte hartu duzu. Zer nolako emaitza lortu zenuen?

Euskal Herrian dauden 7 eskoletako ordezkari banak hartu genuen parte lehiaketan eta hirugarren postua eskuratu nuen. Baldintza batzuk zeuden eta Karlos Argiñanok Zarautzen duen Aiala eskolan burutu zen lehiaketa. Nik 'sukalkia' aurkeztu nuen eta lasai joan nintzen.

- Zure negozioa ipiniko zenuke?

Ez dut sekula pentsatu, ez daukadalako esperientziarik. Orain ikasi eta lana egin nahi dut.

- Eta aurtengo Jardunaldi Gastronomikoetan parte

hartzeko denborarik izango duzu?

Bai, umeentzako gozoki tailerra egingo dut: gomino-lak, piruleta eta M&M galletak egingo ditugu. Nire lehen tailerra izango da.

- Azken urteotan erronka berri askori aurre egiten diharduzu, ezta?

Bai, sukaldean ezerk ez nau beldurtzen! Eta badakit ostalaritzak asko eskatzen duela, baina gustukoa dut. Gustura noa lanera eta gustura zoazenean, gauzak ondo irteten dira normalean. Hala ere, martxotik aurrera egunero egin dut lana eta atsedena behar dut, indarrak proiektu bakarrean ipintzeko.

Dorleta Vidal

J. LUCAS
PINTURA EN GENERAL
630 22 51 36 / ermua@hotmail.es

- Er muko
- Merkatarien
- Elkarteko
- kidea.
- 3 hilean
- ordaindu
- interes barik

Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

AMAIA KAPANAGA

- *Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?*

Beti kalean, baloiarekin jolasten eta sokasaltoan.

- *Eibarren lagunak dituzu oraindik?*

Bai, hamabost neska inguru gara eta bi urtetik behin elkarrekin bidaiatxo egiten dugu. Londresen eta Amsterdamen egon gara, esaterako. Aurten Roma, Berlin edo Pragara joango gara.

- *Zer dela eta etorri zinen Ermura?*

Nire senarrak Elgoibarkoa izanda Ermuan etxea zuen eta hona etorri ginen.

- *Ermura etorri zinenen nolako herria topatu zenuen?*

Bigarren mailako herri-tzat nuen hasieran Ermua, baina jendeak arin eta gustura hartu gintuen. Oso pozik nago.

- *Zer izan nahi nuen txikitari?*

Misiolaria eta optika.

- *Eta zer ikasi duzu?*

Dekoratzailera naiz eta horretan lan egin izan dut.

- *Gustukoa zenuen lan hurra?*

Dekorazioa eta jendearekin hartu-eman ditut gustuko. Lanean hasi nintzenez, ordea, planoak ordenagailura pasatzen ematen nuen eguna eta amaigabea egiten zitzaidan.

- *Noiz hasi zen zure harremana kirolarekin?*

Ikasten nengoenean dirua behar genuen, ama alarguna baitzen, eta ikastaro eta klaseak ematen hasi nintzen.



Eibarren jaio zen duela 45 urte baina 24 urte daramatza Ermuan. Bi anai arreben artean gazteena da. Bi alaba ditu. 19 urte zituenean hasi zen judo eta aerobic-en eta azken 12 urteotan Batzokiko gimnasioan klaseak ematen ditu senarrarekin batera.

- *Alabei kirola egitearen garrantzia transmititu diezu?*

Txikitatik egiten dute judo eta aerobic. Asko laguntzen didate gainera, koreografiak prestatzen esaterako.

- *Lanetik kanpo kirola egiten duzu?*

Lagun batekin mendira joaten naiz noizean behin.

- *Telebistan kirola ikusteko ohitura duzu?*

Ez, nahiago dut zuzenean ikusi. Eskubaloia, esaterako, ez dut larregi ulertzen baina giroa atsegin dut.

- *Erraz haserretzen zara?*

Ez, pazientzia daukat.

- *Hala ere, zerk jartzen zaitu sutan?*

Informaltasunak, jendearen konpromiso faltak.

- *Eta zerk pozten zaitu?*

Eguraldi onak alde batekin, eta nire ingurukoak eta ni neu osasuntsu eta gogotsu egoteak bestetik.

- *Ohetik jaikitzean egiten duzun lehen gauza?*

Txisa egin eta gosaldu.

- *Nor miresten duzu?*

Nire ama.

- *Norekin afalduko zenuke?*

Lagun ona bada, edozeinek.

- *Zure bizitzako egunik zoriontsuena?*

Nire bi alabak jaio zirenean.

- *Abeslari bat aukeratzeko?*

Musika mota asko gustatzen zaizkit, nire lana dela eta egunero bainago musika entzuten. Bat esan behar badut, Maná.

- *Irakurtzeko zaletasunik baduzu?*

Bai, udan batez ere. Liburuak harrapatzen banau irakurtzen jarraitu behar dut eta urtean zehar ez daukat nahi beste denbora.

- *Zinea gustuko duzu?*

Bai, zinea, krispetak eta Coca-Cola.

- *Mendia ala itsasoa?*

Biak ditut gustuko.

- *Krisiari amaiera ikusten diozu?*

Ez, oraindik behintzat ez. Hala ere, gauzek gutxika-gutxika hobera egingo dutela uste dut.

- *Betegabeko ametsik?*

Dantzan jardutea: dantza klasikoa eta gaur egungo dantza atsegin ditut. Txikitatik hasi behar da horretan eta ni alfertxo nintzen!

- *Zure eguneko momenturik onena?*

Etxera heldu, sofan jarri, eta arnasa hartzen dudanean: listo gaurkoz!

- *Dagoeneko oporrak prest dituzu?*

Bai, Malagara joango gara. Senarrak familia dauka bertan eta urtero joaten gara.

Dorleta Vidal

komunitateak
aseguratuak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean



Ermuarrak eta Mallabitarrak Athleticekin Bukaresten

"Egun zoragarria igaro genuen partidua heldu arte. Gainera, Bilbora itzultzeko sekulako kaosa egon zen eta 5 ordu igaro genituen zain autobusean. Emaizta behintzat, aldekoa izan balitz..."



"Egun berean joan eta etorri ginen eta gogorra izan arren, merezi zuen. Ilusionatu eta zoriontsu egin gaituzte eta nahiz eta finalean kale egin, Athletic beti zurekin!"



"Giro izugarria eta tratua bikaina izan zen. Partidua, berriz, desilusio hutsa. Hasieratik ikusi zen jokariak urduri zeudela. Ea hurrengoan!"



Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

san pelayo
clínica dental horts klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04



- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikuluak

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es

DO
Mouth

OUTUMURO

Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

Astehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Futbolean adituak

Athletic-ek UEFA Leagueko eta Kopako finalak jokatuko zituela jakin genduz, netik lerroak eta lerroak idatzi dira honi buruz, eta entzundako eta irakurritako guztietatik batzuk benetan bitxiak izan dira. Hara non topatu nuen 'fenómeno athletic' deritzonari buruz tesi bat idazteko Bilbora etorri den hungariar antropologo bat. Hasieran harrituta geratu nintzen, baina gero, ondo pentsatuta, tesi bat idazteko beste, egon badagoela pentsatu nuen. Kirol horren inguruan gertatzen dena ez da beste inon ematen. Gertakizun soziala dela diotenek arrazoia dutela uste dut, baina zergatik?

Sekula ez dut inor ikusi ospitaleko ateetan medikuen zain autografo bat eskatzeko, edo argazki bat ateratzen egunero ogia saltzen dizun okinaren ondoan. Eta ez dakit zein den arrazoia, bien lana oso garrantzitsua baita gure

bizitzan. Agian bi profesional horien portaeragatik izango da. Ziur nago, ez batak eta ez besteak ez dietela bezeroei dantzatxo bat eskaintzen 'Ai se Eu te pego' abestiaren erritmora, lana ondo egin eta gero, pozez zorutzen egon arren.

Nola lortu ahal du kirol batek, futbolak lortzen duena? 40.000 pertsona mobilizatu bi astean behin, edota maiatzaren erdialdean 12.000 athletic-zalek dena utzita 2.871 kilometro zeharkatu Bukarestera egun pasa joateko. Gaur egungo gizarte honetan, konformismoa eta immobilismoa dira nagusi, futbolaren inguruan, ordea, halakoak ikusten dira nonahi. Non dago gakoa?

Arrazoi batzuk burura datozkit: bere arau sinpleak eta komunikabideek eskaintzen dioten denbora eta espazioa demasekoak dira. Gainera, oso erraza da hitz egitea, kritikatzeari, iritzia ematea...



Alicia Lorenzo

Azken finean, zerbaitetan gure burua aditutzat hartzea. Baina ez dugu ahaztu behar estresa eta tentsioak liberatzeko esparru oso aproposa dela. Era berean, kirol horren inguruan (baina kirolik egin gabe) denbora pasa ezin hobe sortu da eta talde baten kide izatearen beharrak primeran asetzen du.

Baina hau guztia nahikoa da lehen aipatutako zoramena argitzeako? Itxaron beharko dugu Mariann Vaczik bere tesia argitaratu arte, ea mundua mugitzeko txinparta aurkitzen dugun.

'Fenómeno Athletic' deritzonari buruz tesia idatziko du antropologo batek

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Zure publizitatea...
drogeteniturri
aldizkarian
943179350
688 632876
Erdikokale 2, 1
drogeten@gmail.com



SAGARDUI
poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK
ESKAINITZA BEREZIA OSTIRALERO
Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

ETXEBIZITZA

Mallabian pisua salgai: 3 logela, balkoi 2 eta trastelekua.
© 617 63 78 86



Ekainaren 15ean
Zorionak zure
1. urtebetetzean
zure gurasoen eta
Lukenen partez.
Musu handi bat.



Apirilaren 13an
Zorionak Gaizka
Ixone, aita, ama
eta Shakiren
partez. Musu handi
bat, ondo pasa!



Apirilaren 21ean
Zorionak Laura,
Josemonen
partez. Besarkada
eta musu handi
bat. Maite zaitut.



Maiatzaren 14an
Zorionak Aner
zure 2.
urtebetetzean,
ama, aita eta
Paulen partez.



Apirilaren 18an
Zorionak Luken!!!
Ondo pasa zure
egunean, patxo
handi bat zure
famiaren partez.



Maiatzaren 15ean
Zorionak Maialen!
Oso ondo pasa eta
musu handi bat
familia osoaren
partez.



Apirilaren 25ean
Zorionak Irune
zure 2.
urtebetetzean
ama eta aitona-
amonen partez!



Maiatzaren 24an
Zorionak June
zure 3.
urtebetetzean.
Muxu handi bat
famiaren partez.



Apirilaren 27an
Zorionak Maitetxu.
Jada 8 urte!!!
Musu erraldoi bat
Ainhoa, Ama eta
Aitaren partez.



Apirilaren 7an
Gure sorginari
zorionik beroenak
familia osoaren
partez.



Maiatzaren 5ean
Zorionak Bingen
zure urtebetetze-
an familia osoaren
partez.



Apirilaren 30ean
Zorionak Maule!
Musu handi bat
aita, ama, Unax
eta maite zaitugun
guztion partez!!



Maiatzaren 6an
Zorionak Kimetz
zure 2. urtebete-
tzean familia
guztiaren partez.
Musu handi bat.



Maiatzaren 28an
Zorionak Alaitz eta Oier! Beti bezain
jator jarraitu dezazuela, zuen
Mallabarrena 7ko bizilagunen partez!
Kafe eta pastelen zain egongo gara?
Musuak biontzako!



Ekainaren 7an
Zorionak Ziriako
zure 84.
urtebetetzean
etxekoen partez.

**Hurrengo
zenbakirako
azken eguna:
EKAINAREN
11**

Yoga eskola
Sanatana Dharma
* Osteopatia
* Bertebrologia
* Anginak
sendatzeko
masajea...
San Roke 24, behea
943748593 · 685722131 (Idoia)

TELEFONIA INTERNACIONAL
Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA
EGUZKILORE

URRETA burdindenda
* Etxea * Giltzak
* Tresneria * Zerrailgintza
* Brikolaia * Kit altzariak
* Rielak
Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Kopi-Fax
FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**MALLABIA
1965**

Argazki hau Mallabiko plazan aterata dago. Pilar Solozabalen ezkontza ospatzen ari ziren. Bertan agertzen dira:

Joaquin Carracedo 'Iñusiña', Maite Gerrikabeitia 'Iñusiña', Pedro Pagaldai 'Fermiñene', Maria Ortuzar 'Iñusiña', Jabier Solozabal 'Iñusiña', Domingo Arana 'Amesti' eta Julio Solozabal 'Iñusiña'.

**ERMUA
1953**

Argazki hau Zubiaurren aterata dago. Boskote horren atzean artotza bat dago eta gaur egun ere tente dagoen Igartuaneko txaleta. Eskuma-eskuman, ia ikusten ez dela, desagertutako Zerukua baserrietxea. Grupo Santiago ez da agertzen. Ezkerretik eskumara Estanis Izagirre, Miguel Solozabal, Luis Mari Izagirre, Dani Solozabal eta Javier Agirregomezkorta.

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



**Denboraldi bikaina burutu ostean,
Europa League eta Koparen finaletera heldu da aurten Athletic Cluba.
Bizkaia osoko balkoiak bandera zuri-gorriez josita daude eta Ermuan ere, nola ez,
talde zuri-gorriaren ikurrak ikus daitezke nonahi.**

Zer diozu eromen honi buruz?

Athleticen inguruan sortutako eromena positiboa da. Azken partida San Pelaioiko pantailan ikusi nuen, eta irabazi izan balu Bilbon, edo Ermuan ospatuko nukeen. Aspaldian ez du finalik irabazi, eta horrek ospakizun berezia eskatzen du.



Imanol Agirre, 20 urte



Athleticen gaineko eromena oso ondo dago. Azken partida San Pelaion jarritako telebistan jarraitu nuen eta umore txarrez bukatu nuen. Bartzelonaren aurkako partidua irabazteko itxaropena dut eta hala bada, pozaren pozez ospatuko dut.

Esteban Martin, 53 urte

Sortutako eromenarekin ados nago, txikitatik Athletic zale sutsua naizelako. Atletico Madrilen aurkako partida Bilbon ikusi nuen eta kristoren giro euskalduna zegoen. Bartzelonaren aurkako jokaldia San Mamesen ikusiko dut. Irabazten badu, nonbaiten afari batekin ospatuko nuke, eta gabarra ateratzen bada... Puff!



Maialen Agirregomezkorta, 19 urte



Krisia bezalako arazoak ahazten laguntzen digu kirolak, beraz, eromen hau positiboki ikusten dut. Athletic txikitatik jarraitzen dudan arren, partida gutxi ikusten ditut, eta gainera ezin ditut osorik ikusi oso urduri jartzen naizelako. Madrildarren aurka irabazi izan balute, trago bat hartuko nukeen haien ohorez.

Arantza Landa, 46 urte

Eromen hau primerakoa da, ez baitago Athletic bezalako talderik! Normalean partidak zenbait aldiz ikusten ditut, eta madrildarren aurkako azken partida hau, behin bakarrik ikusi dut. Irabazi izan balu, oraindik mozkortuta egongo nintzatekeen.



Jose Gomez, 42 urte



Ondo deritzot sortutako eromenari, atzean afizio polita dagoela erakusten du. Partidak apur bat jarraitzen ditut eta, Athletic zalea naizen arren, futbola ez zait asko gustatzen. Finalen bat irabaziko balu, Bilbon parran ospatuko nuke.

Eider Guisasola, 23 urte

Leire Elustondo eta Izara Rivas



Bizkaia etorbidea 5
48260 - Ermua
943 17 66 32
akerlei@akerlei.com

'ENGLISH FUN'
Kanpamentua
Formigalen

8-14 urte bitarteko umeentzat
Uztailaren 1etik 14ra

Eman izena!!



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

ZINE-KLUBA

- Hilak 7:**
Zehaztu gabeko filmea
- Hilak 14:**
Zehaztu gabeko filmea
- Hilak 21:**
Zehaztu gabeko filmea
- Hilak 28:**
Zehaztu gabeko filmea
20.30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 3,5€.

ERAKUSKETAK

- Hilaren 4tik 17ra:**
Margoa:
Mugartea taldea.
- Hilaren 18tik 1era:**
Margoak: Udal Margo
eskolako ikasleak.
18.00etatik
20.00etara.
Lobiano Kultur Gunean.

ANTZERKIA

- Hilak 1:**
'Diez negritos',
Sutegi Antzerki
taldearen eskutik.
22.15ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 8€

MUSIKA

- Hilak 16:**
Kalejira: Ermuan
Kantuan. 12.30ean.
Plazan.



- Hilak 18 eta 19:**
Kontzertua: Alboka
Musika eskolako
ikasleak. 19.30ean.
Lobiano Kultur Gunean.

- Hilak 20:**
Kontzertua: Alboka
Musika Eskolako
ikasleak. 19.30ean.
Ermua Antzokian.

- Hilak 22:**
Kontzertua: Alboka
Musika Eskolako
ikasleak (Alboka eguna).
22.00etan. Orbe
Kardinalaren plazan.

- Hilak 30:**
Elektrojaia: Musika
elektronikoaren jaialdia.
15.00etatik aurrera.
Baldeospina markesaren
parkean.

DANTZA

- Hilak 9:**
Dantzak: Txindurri eta
Tuiko San Fins de
Reboudans taldeak
(Txindurri eguna).
19.30ean. Orbe
Kardinalaren plazan.



- Hilak 10:**
Euskal dantzak + herri
bazkaria + erromeria
Uria eta Gisasola
bikotearekin
(Txindurri eguna)
12.30etatik aurrera.
Orbe Kardinalaren
plazan.

BESTELAKOAK

- Hilak 2:**
Kulturen arteko jaialdia:
hainbat ekitaldi. Orbe
Kardinalaren plazan.

- Hilak 10:**
Haize zabaleko margo
lehiaketa. 9.00etatik
aurrera.

- Hilaren 11tik 16ra:**
Gastronomiari buruzko
jardunaldiak: hainbat
ekitaldi.

- Hilak 16:**
'Gaua zabalik':
hainbat ekitaldi.

- Hilak 23:**
El Rocio-ko erromeria.
11.00etatik aurrera
Beti-Ondon.

- Hilak 23:**
San Juan sua.
22.00etan.
Orbe kardinalaren
plazan. .



- Hilak 24:**
Motordunen jaia
(pintxoaren ibilbidea).
13.00etatik aurrera.
Orbe Kardinalaren
plazan eta inguruko
lekuetan.

Patxi López

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*De-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Quetzal

Arropa, bitxiak,
opariak... zer ez!

Goienkale 9 • ERMUA
943170065

**MIGUEL
Harategia**

**TXORIZOAK
ODOLOSTEAK**

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería
TITANIK

*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**ARTARRAI
OPARI DENDA**

Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA

Askotan, **konponketa** erantzun egokiena da
Konfiantza eta bermea, gure lanaren gidari

4 x 4



Kamioiak



Tailerra

- 40 urte baino gehiagoko esperientzia dugu ibilgailuen osagaien erreparazioan.
- Gure bezeroen tailerretan jasotzen ditugu piezak, erreparatu ondoren berriz eurei eramateko.



Gure instalazioetan, enpresen ibilgailuak egokitasunez jaso eta kudeatzeko aukera dugu

Deitu edo etorri
eta galdetu

Kalitate-prezio erlazio bikaina

gure produktu eta zerbitzuetan



**AUTO-REPARACIONES
AREITIO, S.L.** **Etab.**

634 errepide nazionala,- 69,5 km.a, Areitio Gaina 15. 48269 - Mallabia

Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15

www.areitiomotor.com / administracion@areitiomotor.com / areitio@areitiomotor.com

100 urte etorkizuna sortzen



- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- MANTENIMENDUA
- MEKATRONIKA
- ROBOTIKA
- ELEKTRIZITATEA
- ELEKTRONIKA
- AUTOMATISMOAK
- TELEKOMUNIKABIDEAK-
INFORMATIKA

Izenematea: Maiatzaren 28tik ekainaren 8arte

Isasi, 36 - 20600 Eibar - Tfno. 943 20 32 44 - e-mail: eibar@armeriaeskola.com

www.armeriaeskola.com

aek

Garena ikasteko
para entendernos
pour se comprendre

**ATERA EUSKARA
EGUZKITARA!**



UDAKO ESKAINTZA

MAILA OFIZIALAK · EGA

- 4 eta 5 orduko ikastaroak
- Maila egiaztatzeko ikastaroak, 3. maila/EGA, hobekuntza ikastaroa...
- Ekainaren 25etik uztailaren 20ra
- Irailaren 3tik 28ra
- Izena eman ekainaren 15a baino lehen

Ermuko Kaltxango AEK euskaltegia

Bizkaia etorbidea13, behea

943 171940

kaltxango@aek.org

www.aek.org

